



UDALEKU IREKIAK 2019: INFORMAZIO OROKORRA

1. NOIZ DIRA UDALEKUAK? TXANDA EZBERDINAK DAUDE? BADA AUTOBUS ZERBITZURIK?

Udalekuak UZTAILEAN izango dira. Dena dela, IZENA EMATEKO HIRU AUKERA EDO TXANDA daude:

- 1- Hilabete osoa (Uztailak 1-30)
- 2- Lehenengo hamabostaldia (Uztailak 1-12)
- 3- Bigarren hamabostaldia (Uztailak 15-30)

Autobus zerbitzua dago eta galdetegia osatzerakoan aukeratu ahal izango da.

2. NORK EMAN DEZAKE IZENA?

Udalekuetan oiartzuarrak diren edo/eta Oiartzunen ikasten duten HH (2015etik aurrera) eta LHko haurrek eman dezakete izena.

3. NOIZ DA IZEN-EMATEA?

Apirilaren 1etik – apirilaren 12ra **(GOIZEKO 11:30AK ARTE-ONLINE BIDEZ ERE).**

4. NOLA EMAN IZENA?

Aurten udalekuetako izen-ematea egiteko modua aldatu dugu, online galdetegi bat osatuz egin beharko baita. Horretarako bi modu daude:

- 1- Online galdetegia beteaz (www.gazteoiartzun.net)
- 2- Mendiburu kalea 5 bulegoan. Astelehenetik-ostiralera 8:30-11:30 eta 14:30-18:30 **(APIRILAREN 12AN GOIZEZ BAKARRIK!)**

EPEZ KANPO EZ DA INOR ONARTUKO

5. ZEIN DA ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA?


Izena ematean (online egin, zein bulegoan) bi dokumentu entregatu beharko dira:

- 1- Haurraren gizarte segurantza txartelaren fotokopia.
- 2- Udalekuetako tasaren ordainagiria.

6. NOLA HELARAZI DOKUMENTAZIOA?

- 1- Izen-emate galdetegiaren bukaeran, drive bidez dokumentuak partekatuz.
- 2- udalekuak.oiartzun@gmail.com helbidera bidaliaz.
- 3- Mendiburu kalea 5 bulegora ekarriz.

7. TASAK ETA ORDAINKETA

	Normala	Normala + autobusa	Matrikulatutako 3 ume %25 deskontua	Matrikulatutako 3 ume + autobusa %25 deskontua
2 aste	37€	50€	28€ (bakoitza)	38€ (bakoitza)
4 aste	73€	100€	55,50€ (bakoitza)	76€ (bakoitza)

ORDAINKETA EGITEKO KONTU KORRONTEA (LABORALA): ES66-3035 0126 64 1260048216

INFORMAZIO GEHIAGO: www.gazteoiartzun.net

KONTAKTURAKO: udalekuak.oiartzun@gmail.com / 645 005 496

GURASO BILERA: Ekainak 11, 17:00etan Pleno aretoan